

# PuLunPe

170. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



“Hondamendian bizi izan gara beti, eta horretaz gogoratuko gara tarte batez.

Baina, ez ezazu ahaztu langileak direla aberastasuna sortzen duten bakarrak.

Gu geu gara, langileok, industrietan makinak martxan jartzen ditugunak, mehatzetatik ikatza eta mineralak ateratzen ditugunak, hiriak eraikitzen ditugunak...

Beraz, zergatik ez dugu eraiki eta, are baldintza hobeetan ere, ordezkatu behar suntsitutakoa?


Ez gara hondakinen beldur.

Badakigu hondakinak besterik ez dugula heredatu behar, burgesiak mundua sunsituko baitu haren historiaren azken fasean.

Baina, berriz esaten dizut, gu ez gara hondakinen beldur, gure bihotzetan mundu berri bat eramaten baitugu.

Mundu hori hazten ari da une honetan berean.”

(Buenaventura Durruti, azaroaren 20an, hil baino pixka bat lehenagoko elkarriketa)



# 2017tik 2018ra

Atzean utziko dugu laster 2017. urtea, eta ongi etorria egingen diogu 2018. ari. Eta ez edonola gainera, Zozketa Mundialarekin egingen diogu agur urteari, ia Olentzerok adina sari banatuz. Urtarrilaren 7an eta irrtati bidez eta zuzenean izanen da hori, eta beraz, zorterik onena opa dizuegu.



nuen, artzapezpikuaren aurkako protesta gisa, amaierarik ez duen Nafarroako tokiko maparen erreforma...

Baina kontu politak ere izan ditugu, Larraintzarko ikastetxearen 50. urteurrena esaterako. Korrika ere gure eskualdetik igaro zen, eta gauez egin bazuen ere jendetza bildu zen Ultzama, Basaburua eta Imotzen kilometroak egiteko. Azken bi bailara hauetan, ezohikoa den boto bat ere eman zuten, Gure Esku Dagok antolatuta Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitze eskubidea gauzatu zuten, eta Atezko bailara Nafarroako eremu eskaldunera igaro da, Basaburua eta Imotz dauden eremura.

**U**rte honetan zehar gure eskualdean gertatutakoan aldizkarian islatzen saiatu gara. Eta denetariko albisteak izan ditugu, batzuk onak eta beste batzuk txarrak.

Saltsa handi izan duten gertaerak ere izan ditugu gurean. Ultzamako bioenergia plantak zer esana eman du 2017. urte osoan, eta 2018tik aurrera ere emanen du, Nafarroako Gobernuaren ikerketa batzordeak abian jarraitzen baitu, eta erantzukizun guztiak argitu arte jarraitu beharko du. Basaburua eta Imotzik igaroko den Ederbi-dearen proiektua ere ezagutu dugu, Nafarroako Gobernuo teknikeriekin ere eztabaida luzeak izan dituen bide bat edo bestea erabakitzeko. Gorrontz-Olanoko elizaren itxiera ere izan ge-

Eta kirol arloan ere poz handiak izan ditugu. Herri kirolean ateztar eta ultzamarren maila handia berretsi dute, futboleak Anaitz Arbilla gorenean ikusi dugu, errugbian eskualdeko emakume asko ere maila gorenean ari dira, golfean Carlota Cigandaren garaipenak ezagutu ditugu, eta Aritz Begino erretiratu ondoren, pilotari profesional berria daukagu, Peio Etxeberria.

Albiste txarragoak ere izan ditugu noski, baina hauek interesgarriagoak iruditu zaizkigu.

**URTE ZAHARRARI AGURRA ETA BERRIARI EGURRA!**

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO

ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eburne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

Emaila: [pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Sareko taldekideez gain, Txurdan.


Koordinatzaileak: Lur Gil eta Iosu Martinez.  
Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U  
Lege gordailua: NA 721/93

Inprimategira Abenduaren 26an bidalia

Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra

HORMARA




"Ostiral kulturalak antolatzea gustatuko litzaizuke? Kontzertuak, hitzaldiak, antzerkiak...  
**ZATOK DINAMIZAZIO BATZORDERA!**  
 Hilabeteko lehengo ASTEARTEETAN biltzen gara arratsaldeko 17:00etan gizarte etxean. Anima zaitetz!  
 Email bidez informazioa jasotzeko: kulturmugl@gmail.com"

Urte berriari zer eska?  
Izan mutil, izan neska,  
bizi gaitzela barrezka  
ta ez itota kezka kezka.


Urte berriari zer galde?  
Egin dezatela gaitzek alde,  
izan dezagula osasuna alde  
ta egin elkarri (z)irri debalde.

Urte berriari zer opa?  
Egin dezagula denok topa,  
bete askatasunaren kopa  
ta kendu lotsaren arropa.

Badoa betiko urte zaharra,  
hartu ona, baztertu txarra,  
eutsi pozari, utzi negarra.  
Badator berriaren oldarra,  
badakar biziaren indarra.  
Izan aske, ausart, ez koldarra,  
izan fina, ekina, ez zabarra,  
alboratu aitzakia kaskarra,  
ito zuribide merke baldarra,  
ilusioz bete dezagun bularra,  
odolean grina, gogoia, garra,  
ahaztu jendearen marmarra,  
dastatu erronkaren aparra,  
gogor heldu zezenari adarra,  
elikatu barru-barruko harra,  
erein ezpainetan irrifarra,  
borondatean dugu iparra,  
eztarrian, berriz, deiadarra  
eta aho barruan, noski, izarra:  
**MIHIAN EUSKARA BARRA-BARRA,  
GURE TERRITORIO LIBRE BAKARRA.**



El Robledal de Orgi en Navarra, desde el aire



#### ULTZAMA: EKIMEN ANITZAK ABENDUKO LEHENENGO EGUNETAN

Kulturari begira, Ultzaman hilabete hasieran mugitua izan zuten. Abenduaren lehen egunean euskararen inguruko ekimena burutu zuten, 2an Mintzodromoa deitutakoa eta 3an kirolaren eguna ospatu zen.

Guk euskararen ingurukoari buruz Felix Altzelai euskara teknikariarekin hitz egin dugu: "Gure planteamendua zen ohartaraztea hizkuntzarekiko ditugun ohiturak eta horiek aldatzeko ditugun tresnak... Lan talde batek ekimen erakargarria prestatu zuen: hasieran jendea erakartzeko esketx bat egin eta gero eskualdeko hainbat herritarren testigantzak jasotzen duen bideoa proiektatu genuen; ondoren, taldeka horiei buruzko gogoeta egin eta ohiturak aldatzeko proposamenak jaso genituen. Pozik gaude, parte-hartze polita izan baitzen, kontuan hartzen badugu elurra ari zuela arratsalde horretan.

Sarrera gisa, Basaburuko Txetxuk antzerkitxo bat prestatu zuen: bizikleta baten gainean egur saltzailea gisa aurkeztu zuen bere burua. Erdaraz hitz egiten hasi eta gero konturatu zen denak euskaldunak ginela... Berak pentsatzen baitzuen inork ez zuela ulertuko. Horren ondoren, Arantxak eta Lurrek grabazio labur batzuekin prestatutako bideoa proiektatu zen, non hizkuntza egoera desberdinak azaltzen diren". Bideo hori gure webgunean ikusgai duzue: [www.ametza.eus](http://www.ametza.eus). Bideoen harira, partaideak lau taldetan banatu, egoera horiek aztertu eta zer egin al zen aztertu zuten".



**ESKA EZAZU  
OFIZIALTASUNA  
BERDINTASUNA  
LORTZEKO.**

# Herri txiki, idazle handi

Abendua euskal literaturaren hilabetea da. Durangoko azoka dela eta, kultura sorkuntza uholde bat izaten dugu urtero. Aurten bereziki aipagarria izan da, kasualitatea ote, gure eskualdean ere bizitu dugu halako literatur "uholdea". Ikusiko ditugu zer berri hemendik.



## IÑIGO ASTIZ: PEDERASTIA EUSKAL ELIZAN


A hopean beti, zerbait lotsagarria balitz bezala, egiten zuenarentzat ez ezik, sufritzen zuenarentzat eta inguruko guztientzat.

Horregatik hobe isilpean, hautsak gehiegi harrotu gabe.

Baina iritsi da garaia gauzak esateko eta gertaerei bere izenez deitzeko. Eliza barruko pederastia kasuez ari gara, apaiz eta fraideek gaztetxoei egindako sexu abusuez. Mundu anglosaxoian lehertu ziren halako eskandaluak lehenik, baina olatua mundu osoan barrena hedatu da, baita gure artean ere.

Alberto Barandiaran, Iñigo Astiz ultzamarra eta Miren Rubiok, eskarmentu handiko kazetariak hirurak, ezkutuan zegoena argira atera dute, Euskal Herriko elizan izandako pederastia kasuei buruzko erreportaje zabal honetan.

## SANDRA IRAIZOZEN LIBURU BERRIA MARTXAN:



“948 Merkatuaren barnean Liburu, Disko eta Beste Euskarri Batzuen I. Argitalpen-azoka antolatu zen.

Baluartan maila profesionalean antolatzen zen jardunaldira Arburu proiektuarekin joan nintzen, baita *En un segundo tu vida cambia* liburuaren zinemarako egokitzapena, Cayeye films produktorea ordezkatuz.

Geltokian egin zen azokara nire lehen liburuarekin joan nintzen, eta azalaren diseinu batekin.

Bi liburuak erakusteko aukera izan nuen, baina *Ana se viste de Prada* liburuaren aurrerapen bat besterik ez nuen eman. Aukera probestu nuen, gainera, standera hurbildu ziren guztiei galdetzeko nola gustatuko litzaiekeen izatea bigarren liburuaren azala.

Bigarren hau lehenaren jarraipena da, eta ikusirik jendea izan dela bere historiak kontatuz istorioa jarraitzeko inspirazioa eman didana, liburuaren azala ere beraiek aukeratzea nahi nuen, berez denon liburu-baita”.



## IZASKUN ZUBIALDE IRAKASLEA, “SARERIK GABE”

H istoriako liburuetan agertu ez arren historia egin duten emakumeak, profil anitzekoak eta gertukoak, ausartak: Etxauriko emagin bat, Bizenta Mogel euskarazko lehen idazle emakumea, gerrako espia bat, euskal diasporako migratzailea, Maialen Lujanbio bertsolaria... Horiexek dira protagonistak, Sarerik gabe, historiak emakume izena dauka liburuan, Ultzaman irakasle den Izaskun Zubialdek, Bakarne Atxukarrokekin batera idatzitako lana.



**OSKOZKO JOANA CIGANDA, "GALTZETAN"**

### ***Nola bururatu zitzaizuen proiektua?***

Ipuinaren mundua oso gustuko izan dut beti. Haur Hezkuntzako irakaslea naiz eta ipuin berriak ezagutzuz, ipuin bereziak bilatuz, kontatuz eta asmatuz gozatzen dut. Iker ilustratzailea da, sariketa batean aurkezteko ipuin baten bila zebilela, proiektua elkarrekin egitea proposatu zidan eta animatu nintzen. Egunerokotasunean, edozein etxetan bizi daitekeen egoera batek ideia eman zidan eta hortik abiatuta "Ni neu Galtzeta" sortu genuen.

### ***Iker Uribe ilustratzailearekin batera egin duzu lan, zer moduz?***

Iker ilustratzaile eta muralista da. Aurretik beste ipuin bat argitaratu zuen, "Txirringa magikoa" eta bazekien zeintzuk ziren proiektua aurrera eramateko eman behar ziren pausuak.

Elkarlanean egindako proiektua da, asko ikasi eta gozatu dugu bidean, oso polita izan da. Nahiz eta nik idatzi dudana eta berak ilustratu, bion artean egin dugu "Ni neu Galtzeta", bai testu eta bai irudiari buruzko iritzi, proposamenak biok eginez.

### ***Dani Martirenak ere beste liburu bat, herri txikietan bizitzeak uzten ahal du, modu batean, denbora libre asko etxean lan egiteko?***

Ni oskoztarra naiz eta Iker lakuntzarra, baina momentu honetan Irurtzunen bizi gara. Egia esan, gaur egun ez da erraza denbora libre asko izatea, baina agian sorkuntzarekin zer ikusia izango du herri txikietan bizitzeak! Bizi erritmo, paisaia eta giroaren ondorioz txikitatik irudimena eta sormena garatzeko aukera gehiago eskaintzen ote ditu? Imotzen behintzat sortzaile eta artista dezente badago...

### ***Egingo laburpentxo bat?***

Galtzeta bakarrik gelditzen den galtzerdi bat da. Berak argi du zein den bere helburua eta hasieran larritu egiten den arren, bere beldurrak gaintitu eta bere ametsaren bila abiatzen da. Bidean hainbat oztopo gaintitu beharko ditu, baina berak aurrera egingo du sorpresaz betetako bidaia zirrargarri batean.

Ipuinaren hari nagusiak norberaren indarra, autoafirmazioa, eta oztopo guztien gaintetik ekiteak duen garrantzia dira, baina gizartearen estereotipoen inguruko beste hainbat hari-mutur lantzeko aukera eskaintzen du.

### ***Nola editatuko duzue eta non aurki daiteke?***

Ipuina sortu genuenean emozio handiarekin egin genuen. Bertan zabalitzen den mezuarekin bat egiten dugu eta polita iruditu zitzaigun haurrengana helaraztea. Horregatik, guk argitaratu dugu, guk egindako autoekoizpena da.

Zenbait liburu-dendetan dago jada, Iruñean, Larraunen, Leitzan, Sakanan... inguru honetan Apeztegi-berri dendan eta Irurtzungo Pikuxarren dago. Eta abenturarekin jarraitzeko "Ni neu Galtzeta" Durangon egongo da.



**ANA IBAÑEZ ETA DANI MARTIARENA:  
"JONEK JONE IZAN NAHI DU".**

mozko bikote honek oso liburu polita aurkeztu dute, "bere txikitasunean itxurosoa". Danik zera komentatu digu:

### ***Nola sortu zen proiektua?***

Etxepare sarira prestatu genuen orain dela bi urte. Anak ilustrazioak eta nik testuak. Ez genuen irabazi baina merezi zuela erabaki genuen. Ilustrazioak izugarri ederrak dira, eta erakusten dute zenbaterainoko lana hartu duen Anak. Auto-ekoizpenaren bidetik joan gara. Orain, karrikan dagoelarik, ikusiko dugu ze bide egiten duen. Izenburua, behintzat, jostagarria da...

### ***Herri txiki idazle handi?***

Izan daiteke. Gure eskualdean neguak gogorak dira, etxera biltzera derrigortzen zaitu, ematen du aukera honetarako... Baliteke Iruña batean, dibertimendu gehiago egotean, ez genukeela halakorik eginen...

## Atezko **berri** batzuk

Atetzen hainbat kontu izan dira azkenaldi honetan, eta laburrean azaldu nahi ditugu hemen.



**A**lde batetik, Izarpe kanpina bere amaiera fa-sean sartua dago, eta otsaila bukaeran in-auguratzea aurreikusten dute, Nafarroako Gobernuaren ordezkari garrantzitsuren batekin, oraindik zehaztu gabe dagoena, baina izan liteke Uxue Barkos lehendakaria etortzea gurera kanpi-nari hasiera ematera.

Beste alde batetik, babestutako lanaren bitartez, Eritzen eta Aroztegin konponketa batzuk egin dituzte. Eritzen potroa da berritu egin dutena, eta Aroztegin elkartearen kanpoaldea. Atezko Uda-

leko ordezkari den Iban Baztanek aipatu digu ba-bestutako lanaren aldeko apustua egiten dutela, irabazteko asko baitu, eta dirua egonez gero horre-kin jarraitzeko konpromisoa hartzen du Udalak.

Eta azken kontu batzuk: Udaleko administrariaren lanorduak handitu egin dira, bere lanaldia osoa izanik aurrerantzean. Eta, azkenik, interneteko wifi konexioari dagokionez, orain arte Udalak ku-deatzen zuen wifi konexioa, baina bere kompeten-zia ez denez, beste enpresa batzuekin kontaktatu dute lan hori egin dezaten.

## Errigorak 14.00 saski **banatu** ditu oraingoan



**B**osgarren urtez jarraian, Nafarroako hegoalde-ko nekazariak laguntzeko kanpaina “arrakas-tatsua” izan da. Antolatzaileek adierazi dute-nez, kanpaina “ederra” eta emaitzak “bikainak” izan dira: “175.000 euro bildu ditugu euskaratik, euska-

raz eta euskararentzat”. Lortutakoa ez dela kasuali-tatea diote, “175.000 euro ez baitira zerutik erotzen” eta herrilanean egindako lana txalotu dute. Aurten-go kanpaina buru belarri murgildu diren bolunta-rio, haur, nekazari nahiz banatzaileei eskerrak eman nahi izan dizkiete eginiko lanagatik. “Saskiez gozat-zea baino ez zaie geratzen Errigora posible egiten du-ten guztiei”.

Bost urte dira Errigora ekimena sortu zela. Aurten-go kanpaina kontuan hartuta, jada 800.000 euroko ekarpena egin diote euskalgintzari. Urriaren 26an hasi zuten herriz herri egin duten kanpaina. Herrien artean zubiak eraikitzea izan da bosgarren. edi-zioaren xedea, harreman berriak eraikitzeko. “Oso pozik gaude lortutakoarekin”, diote antolatzaileek.



## Arte erakusketak gurean

Apeztegiberrin eta Larraintzarko eskolan izandakoei buruz jaso dugu informazio labur hau



Carmen Diazek, beira urtuarekin lan egiten du aspaldi, “betidanik gustatu izan zait arte hau, beroak beira nola urtzen duen ikustea... oso hunkigarria da, bizirik dagoela dirudi... Horretaz gain, beira urtua, kolorez aldatzen da argiztapenaren arabera...”

Lorea Lasa: “Egia esan, hasiera batean erakusketak Carmenek bakarrik kudeatu behar zuen baina oso lanpetua zebilen eta proposatu zidan bion artelanak ekartzeari Basaburura. Elkarrekin lan egin dugun lehenengo aldia da oraingoa.”

Oso pozik gaude, nahiko harrituta geratu ginen ikusi genuenean zeinen ongi geratzen diren gure lanak bate-ra. Bien lanak hartu eta bertan nola jarri erabaki genuen. Batez ere, argiak eta koloreak kontuan hartuta. Zeramikaria da Lasa: “Niretzako oso berezia da eskuekin lan egitea. Lurretik ateratzen den zerbait da... ni txiki-txikitatik zeramikari izan nahi nuen, niretzako errealitate bihurtu den amets moduko bat da hau”.

**B**asaburuko dendan hilabete honetan ikusi ahal izan den erakusketak atentzioa eman digu zeramika eta beira nahasten dituelako. Erakusketaren protagonistekin hitz egin dugu.

Ultzamako ikasleek, bestetik, artelan xume batzuk egin dituzte: bigarren mailakoek mural bat egin dute eta hirugarren mailakoek berdintasunaren inguruko argazki batzuk

## Etsaingo azken euskalduna

JASOTAKO  
GUTUNA



**A**nue XIX. mendearen hondarrean hasi zen erdal-duntzen, eta gaur egun, bertako mintzoa egiteko gai diren hiztunak kontatzeko, aski da esku bakarreko hatzak baliatzea, Lingua Navarrorum blogean ikus daitekeenez. Etsainen, dirudienez, Landa etxeko Urbano Erro Yaben izan zen azken hiztuna, 1953an zendua. Horren kontzientzia bide zuten hilarria paratu ziotenek, datu hori hilarrian berean jaso baitzuten.

EMEN DATZA ERRO YABEN DAR URBANO LANDA  
ETXEKO SEMEA  
GOYAN BEGO  
ERRIONTAKO AZKEN EUSKALDUNA  
1953. URTEA

Hobia hilerrian dago, San Juan batailatzaileari eskainitako elizaren gibeledu aldeari atxikirik. Eliza herritik aparte dago, gain batean. Txiki-txikia da hilerria, beraz, aise aurkitzen ahal da harria, sartu eta eskuinetara.

EGUNERATZEA: Interneten hau argitaratu dudana egunean berean Leire Narbaizak gogora ekarri dit Xamarrek Orenkan liburuan eta Euskara Jendea dokumental sortan ematen duela honen berri. Mila esker!

[HTTP://EUSKARGAZKI.BLOGARIAK.NET](http://EUSKARGAZKI.BLOGARIAK.NET)

## Aritzu gaueko maratoni erdiaren irteera izanen da 2018ko NX lasterketan



**A**urtengo lasterketa amaitu berri, eta datorren urtekoan pentsatzen ari dira jada Nafarroa Xtreme lasterketako diseinatzaileak, tartean Asier Uriarte auzarra eta Aitor Iraizotz aritzuarra.

Pentsatzekoa da azken honek zerikusi handia duela 2018rako aurkeztu dituzten berrikuntzekin, bere herriatik abiatuko baita lasterketako bat.

Bi ziren lehenbiziko bi urte hauetako distantziak: 68 eta 32 kilometro, Zubirin hasi eta amaitu, lehenengo horretan Lantz eta Aritzutik igarota. Datorren urterako bi berrikuntza nagusi ditugu, data aldaketa (apirilaren 28an izanen da), eta hirugarren distantzia bat gehitzea, maratoni erdia (21km).

Hala ere ez da maratoni erdi normala izanen, mendiko bide eta xendetan egiteaz gain, gauez izanen baita lasterketa. Eguzkiaren azken izpiekin abiatuko da Aritzutik lasterketa, 19:30ean, eta Aritzutik gorako mendietan iritsiko da iluntasuna, eta linternak erabilita egin beharko dute korrika Zubirira iritsi arte. 4 gailur igaroko dituzte eta 1300m-ko desnibel positiboa egin beharko dute.

## Denda bat ireki dute Lantzen



**A**spaldian bueltaka zekarren asmoa gauzatu du Isabel Baleztena lantarrak. Herrian denda bat irekitzeko beharra ikusirik, oraintxe izan da momentua eta herri denda ireki du herriaren sarreran. "Ilusio handiz" hasi dela aipatu digu, hasie-

ran martxa hartzea kostako zaiola jakitun bada ere. Lantzek denda bat zeukan orain dela denbora dezente, hamarkadak ere igaro dira ordutik. Orain, batzuek erosketak kanpoan egiten dituzte, Iruñea inguruan esaterako, eta beste askok herrira joaten diren salmenta-kamioiei egiten dizkiete erosketak. Baina beste zerbitzu bat gehiago izanen da hau, Isabelek dioen moduan, betiere kamioien salmentarekin lehiatu nahi izan gabe, haiekin ere hitz egin baitu euren iritzia jakiteko.

Erosle batzuk herrikoak izanen dira, baina beste batzuk kanpokoak. Geroz eta bisitari gehiago ditu Lantzek, batik bat Baztandik datorren Santiago bideari esker. Horietako asko Lanzko aterpean geratzen dira lotan (beste batzuk Olaguera joaten dira), eta hainbat gauza erosteko beharra izan dute askotan, baina ezin Lantzen deus erosi. Beraz, bai herritarrei zein bisitariari eskainitako zerbitzua izanen da Lanzko herri denda.

## Juanbeltz gazta munduko onenen artean

**M**undu mailan izaten den World Cheese Awards lehiaketan parte hartu zuten bBeruetearrek, eta hirugarren postua lortu zuten latxa ardiekin egindako gaztaren sailean.

Idiazabal izendapena duen Insalas gazta izan da Juanbeltzek aurkeztutakoa eta brontzeko domina lortu duena.

Oсотara mundu osoko 3.001 gaztaren artean aukuratu behar izan zuten epaileek, eta, beraz, ez da txikieria hirugarren postua lortu izana bere sailean. Gainera, ez da lehen aldia Juanbeltz gaztandegiak sari bat jasotzen duena. Izan ere, 2012 eta 2013an urrezko domina lortu baitzuen. Eta aurten ere, Uhartte-Arakileko Artzai Egunean, lehen saria ere lortu zuten beruetearrek.

# Onddo egunaren kronika



**A**zaroaren 19an Onddo Egunaren VII. edizioa izan zen, eta aurreko urteetan baino postu gehiago izan ziren.

Egun eguzkitsua egin zuen eta makina bat jende bertaratu zen. Jendea 11:30 aldera hasi zen agertzen, eta postuak ikusten gozatu ondoren ostatueta jo zuten pintxo-pote mikologikoa dastatzera.

Oso harrera ona izan dute pintxoek. Guztien artean Ultzamako Bentakoak eta Lizasoko Orgi jatetxeak nabarmendu ziren.

Pilotalekuko postuak askotarikoak izan dira:

- Mikel Lasarte, zurezko eskultura (Aizarotz)
- Ana Urteaga, zurezko artisautza (Iraizotz)
- Postres Ultzama, esnekiak. Aurten ardi-esnez eta ondoez eginiko kroketak eskaini dituzte.
- Setatronk, enborretan txertaturiko belarri landuak (pleurotus ostreatuz) (Etxaleku)
- Galdakotik, Kromobil zizen kromoen bilduma aurketzu dute, euskara hutsez. Kromo horiek Lizasoko dendan erosten ahal dira.
- Saskia eta zizak, zizekin loturiko gauzak, labanak, liburuak, kamisetak, eta abar (Valentzia)

-Ubieto etxea, boilurretan espezializatua, zizekin loturiko gauzak, labanak, liburuak, kamisetak (Ayerbe)

-Bongui. Zizen erreplikak (Soria)

-Gobeies. Ziza freskoan salmenta (Arrotxapea)

-Aitona sagardotegia. Sagardoa, taloen salmenta laguntzen du (Gerendiain)

-Ekotaloak. Talo ekologikoak zizekin. Hasi zirenetik alde egin arte ilarak izan ziren taloak erosteko. Arrakasta handia izan zuten. (Alkiza-Gipuzkoa)

-Metautengo boilurren museoa. Bilurrez eginiko produktuen salmenta (Nafarroa)

-Mikovaldorva. Orba ibarrari eta boilur egunari buruzko informazioa.

**E**rdi aldean erakusketa bat egin genuen hilaren 17an Larraintzarko ikasleekin bildutako zizekin eta 18an eginiko hiru bisita gidatuetan bildutakoekin. Zizen erakusketan Javier Gomez parkeko mikologoak eman zituen azalpenak. 14:00etan zozketa egin genuen postuak paratu zituen jendeak, bailarako beste zerbitzu batzuek eta Nafarroako Rural Kutxak emandako sariekin.

GARRAPO

De Rerum Natura



## Ultzamako herrien arteko euskarazko lehiaketa egin zuten



**E**uskararen nazioarteko egunaren harira egin-dako beste ekimen bat izan zen hau, abendua-ren 2an eginikoa. Larraintzarko bentan Ultzamako 8 herri aritu ziren “Jolas eta solas, euskarari arnas” jokoan.

Hainbat proba eta galderaren bidez, Ultzamako kultura, historia eta ezaugarrien inguruan euskaraz aritzea zen helburua, eta horretan aritu ziren Lizaso, Urritzola, Auza, Iraizotz, Suarbe, Alkotz, Arraitz eta Eltzaburuko bizilagunak. 32 parte-hartzaile izan genituen, eta ikusleak ere ugari izan ziren; osotara 70 pertsona elkartu ziren.

Imintzioka (mimika), inteligentzia probak, abestiak osatzea, musika taldeak asmatzea, Ultzamako kiro-

lari zein pertsonen inguruko galderak... Halakoak erantzun behar izan zituzten lehiakideek, eta azkenean, Auzako biztanleak izan ziren irabazleak. Baina egia esan, parte-hartzaile zein ikusleek, denek irri dezente egin zuten eta pozik, datorren urtean berriz egiteko asmoz amaitu zen ekitaldia.

Ultzamako Udalak, bailarako herritarrekin antolatutako ekimena izan zen, eta jendearen inplikazioa handia izan zen. Sariak banatzeko ere, Eltsoko ezti-gileak, Postres Ultzama, Aitona jatetxea, Goshua eta Ana Urteagaren inplikazioa beharrezkoa izan zen.

Bi hitzetan, giro ederra sortu zen, Ultzamako biztanleak elkartuz, Ultzamaren inguruan jolas eta solas eginez eta hau dena euskara erabiliz.



### Irudi batean



**P**lanetaren egoera kritikoa da, kutsatzen eta kontsumitzen jarraitzen badugu, hemendik 100 urtera, espezie gehienak desagertuko dira eta mundua eremu bihurtuko da, non gizakiak ez du bizirik izanen. Premiazkoa da jardutea.

Bakoitzak gure inguruan esku hartzen badugu, planeta salbatu dezakegu. Auzolanen basoa garbitzearen esperientzia oso aberasgarria izan zen. Auzolan hauetan kolaboratzeko jarri gurekin harremanetan: 647 752 644. ISABEL ECHANDI.

## Igoatik berri onak



**B**asaburuko herri honetatik bi kontutxo azaltzen dizkigute. Alde batetik, ostatua berriro ireki dute Antonio Miguelek eta Anak. Azken hilabeteak itxita egon ondoren berriro itzuli dira. Santos alkateak gogorazazi digu haien sukaldearen kalitatea eta biztanleen poza: “Hiru urtez segidan onddo pintxo lehiaketa irabazi zuten. Haiek kontent eta gu ere kontent”.

Bigarren kontua argiztapena da, berritu baitute. LED teknologia jarri dute kaleko faroletan. “Gobernuaren diru-laguntza batzuetara aurkeztu ginen. 15.000 euro inguruko aurrekontua zegoen, laguntzek 10.000 ordaindu eta bestea herriak jarri”. Argiaren faktura jaitziko da, espero erdira joatea”. Arrazoi ekonomikoek gain, estetiko eta praktikoak ere badaude: “herriaren itxura aldatzen da, ez pentsa...”

Orain lurrera doa argia, eta ez ditu paretak kasik argitzen. Bagenuen beldurra ongi argituko ote zuen, baina jende askok esan dit orain politago dagoela herria. Farolen distribuzio nahiko ongi dago eta orain lurra gehiago ikusten da eta horrekin leihoen argia gehiago ikusten da, kontrastea handiagoa da. Pertsonalki niri gustatu zait aldaketa”.

## Zaintza lanei buruzko tailerra



**A**zken urteetan eskualdeko eskoletan rolak, lanak, ereduak eta halakoak lantzen ari dira antzerki eta jolasen bidez Iñigo Aranbarri gipuzkoarrarekin. Behin baino gehiagotan jaso dugu bertan azaldutakoak eta aurten kontatu nahi dizuegu proiektua ere martxan dagoela, hori bai, datak zer edo zer aldatu dira; antzerkia abenduan izan ordez martxoa aldera egingen dute. Abenduan gurasoekin bildu ziren nondik norakoak azaltzeko.

Josune Antxo teknikariak komentatu digu ez zela aparteko zerbait izan, “hezkidetza proiektuaren barneko bilera bat baizik. Bertan zertan ari diren azaldu zen: aurtengo proiektua hamar saio izanen dira, urrian hasi eta martxoan bukatuko dutenak.” Proiektu hau irakasle eta familiekin batera landu da, etxean ere lan egiten jarraitzeko.

Antxok azaldu zigun parte-hartzea eskasa izan zela. Ultzaman 10 inguru eta Basaburuan 8 inguru bildu ziren.

## Iritzia: “Zomorroak”

**J**uan Antonio Urbeltzek dioenez, kultura akademikoak ez du nekazarien ikuspegia ulertzen jakin eta inauteriei buruzko interpretazio

okerrak hedatu izan dira luzaroan. Mozorro-zomorro ideia dago, haren ustez, tradizioon atzean: mozorroekin zomorro bihurtzen jendea eta halaxe, zaldien isatsak eta joareak baliatuta, egiten zituzten udaberriarekin batera iritsiko ziren intsektuak uxatzeko konjurak.

Zomorro jendea neguko solstizioaren atarian ere biltzen da ordea, San Tomas jaien inguruan. Han ibiltzen dira kilkerak, kri-

kri-kri, isildu ere egin barrik, parera datorkien edo nori konbertsazioa ematen. Ibiltzen dira kakarraldoak, zakar fama daukaten kuadrillako lotsatiak. Inurri jendea, taldean beti, egundo taberna batera bakarrik sartuko ez liratekeenak.

Eta jende matxinsaltoa, lagun multzo batetik bestera jauzika egiten dutenak parranda. Armiarmak, seduktore diskretuak. Eta tximeletak, kosta ahala kosta ingurukoaren arreta euren-

ganatzen saiatzen direnak. Han ibiltzen dira euli marreatuak, ingurukoak bi, lau, sei, zortzikoiztuta ikusten dituztela. Eta erle moko luzeak, inoren edalontzitik xurgatzeko prest beti. Jende mandeulia (arriskutsu samarra), harrapari gogaikarriak baina prebisibleak. Eta eltxo jendea (benetako arriskua), nahiz inofentsiboak eman, nahinor ziztatuko luketenak. Han ibiltzen dira denak, zomorro-zomorro, mozorrorik jantzi ez arren ere.



**Miren Amuriza**  
BERRIA egunkarian





## Esku-pilotaren loratzea Ultzaman

Jendetza **Aritzun** Olentzerori gutunak emateko

Imozko **infernua** ETB1ean

Imozko **Xenden** eguna ospatu zen berriz

Antonio Ziaurritz Buruco **bertsolaria**, Aritzutik Auzara (I)

CARLOTA CIGANDA, LARRAINTZARKO GOLF JOKALARI PROFESIONALA

"Orain, munduko **onena** izateko aukera ikusten dut"

Aitor Iraizotz **aritzuarra** podiumetan berriz ere

## Atetz **eremu** euskaldunera

## Sukaldaritza **ikastaroa** Muskitzen

Haur eskola **berria** Jauntsaratsen

Bioeraikuntza **ikastaroa** Lizasoko Baserri Eskolan

Micaela Zabaleta: Suarbeko emakume **ausarta** (1)  
(MARIA SANTOS ARCE, BERE AMA MICAELAZ)

## Sinatu da **Berdintasun** plana

Parke mikologikoak 10 urte **ospatzen** ditu

Basaburuan eta **Imotzen** erabaki dute

## Araztegi **berria** du Lantzek

## Euskara klaseak doan **Larraintzarren**

Atezko Mikel Eugi Nafarroako **arpana** txapeldun Aresokor  
Itsaso Onsalorekin batera

Europako abeltzain esplotaziorik handiena "Valle de Odieta"  
**kooperatibak** eraikiko du Sorian

Pedro Munarriz Goñi: **Eguarastik** Larraintzarren barn

Danonek **abeltzainak** alde batera uzten ari dela salatu dute

JOAKINA ETXEGIA, BERUETEKO BIZTANLEA ETA ETXEKO LANGILEA:

"Lehen astoak bezalaxe egiten genuen lan"

SAIOA MUÑOZ ETA MIKEL GERENDIARI

"Ziaurritzen beti izan gara nahiko saltseroak"

Mikel Beunza **garaile** Berroetan

Ulertu al dezakegu gaurko ekonomia eta politika  
**Berueteko** zuhaitz bati begira?

EDURNE KOCH, BEÑATEN AMA

"Oso gogorra da ume bati **identitatea** ukatzea"

## Hilabete oso bat telefonorik gabe

JOSU OLLIO BILDARRATZ, GOLDARAZKO ARTZAINA

"Gazteon arteko **giroa** sortu behar dugu"

Anueko festak Etsainen, baina **etulaindarrak** protagonista

Ultzamako plantaren kasua: **puzzlearen** piezak bat egiten hasi dira

Basaburutik **Gernikara**  
errefuxiatuen alde



## Gaztanberaren **Eguna** Arraitzen

## Atea itxi dioten **elizaren** istorioa


Gorrontz-Olanon aspaldi ez dago mezarik, Herriko elizako atea itxi  
zuten, hilabete luzez Artzapezpikutzaren "azpijokoak" salatzeke.

Ordu txikitan ere **KORRIKA!**










# Esan omen zion **behin...**(1)

Erran men'tzion..., esan ben'tzion...



## Negu betean goiz iluntzen du

**B**ehin banindoan (banien) ardi borda batetik pasatzen den bidean behera eta hantxe ikusi nuen gora heldu zela artzaina.

Iluntze-iluntzea zen eta hala erran nion:

-Jexus, gaur berandu hoa bordara.

-Berandu? Ez, ez, berandu ez! Goiz iluntzen dik eta!

Erantzuna neurrikoa, ilbeltzaren 5a, Errege bezpera zen eta. Arrazoi betea Jexuxena, ez baita tentelkeriak botatzen dituen horietakoa.

## Muskizko ezkontza batean. Joaneseneko Nuindarren baten ezkontza (gerra ondoan gertatua)

**A**peza, Migeleneko Joaquin zena eta beste hainbat jende mahiaren inguruan, bazkal ondoren solasean patxada ederrean. Ez zen harritzekoa, ezkontza hartako oturuntza eder harren ondoren.

Bazkari kontuz solasa atera eta, batek erran

omen zuen:

-Bazkari ona!

Eta Joakinek, berehala ihardetsi:

-Bai, bazkari ona, baina ogi gutti!

Ogi eskasia izaten zen gerra ondoan. Garai haietan ogia estimatua izaten zen gero!!!! Orain, harrika botatzen dute gaurko umeek!

## Igoaldean agurtzen ikasi behar da.

Ostatu zaleak agurtzerakoan motz.

-Yepa! Igoan zenbaitek ostatun sartziin hola saludetzen zin. Eta Igoako Etxezarreko ostatuko Maritxuri gustatzen ez.

Eta honek baziin kostunbrii haundii, jendii hara yoatin, sartziin, YEPA, esaten zutenei eantzuteko:

-Yepa!! Yepa itten dun gizonak poltsan diru gutxi!

Yendi'hoiek hala ere ikasten ez.

Arraioa! Ostalariak ezin erakutsi modu onean agurtzen ostatu zaleei!



## Hemen zaldiak ere agurtu behar dira.

**H**au ere Igoatik hurbil zen ba. Kilometro pare bat beherago, Igoako eta Aizarozko mugan. Honela da istorio hau:

Lenau bayun istorio'at kontatzen dutena. E'tzakit nor zen. Hemen norbatte zaldiikin ibiltzen zena, tratoan edo.

Eta hori, Atamendiko Martin eo hasarretue izan bear zin harrekin, eta gio, eun bates harpatu men'tzin bidiin zaldi gañen heldu zela ta, Martiñek,

-Kiai! Eunon! –esan omen zioken ta.

-Ze!! Ez'al niin esan nei ez saludetzeko?

Eta Martiñek:

-Nik ez dit hiri saludatu, Nik hii zaldi saludatu'it. Aizaroztik gora jende guzia agurtu, eta asmatuko duzu. Eta behera ere zergatik ez? Agurtzen ez duenak bere burua beheratzen du ez bestearena. Kontu hauek eta beste batzuk Igoako Leontzio soinu jotzaileari entzun izan dizkiogu behin baino gehiagotan.

Eta Martin hau, Martin Arretxea Goizueta zen, Atamendiko mutil zaharra, adimen argikoa eta hizketan ziri sartzaile aparta. 1982ko irailaren 5ean hil zen laurogei urtetan.

## Larunbatetan lanean aritzea bekatu.

**J**uduen artean asteko egunik sakratuena larunbata izaten zen, kristauen artean igandea den bezala.

Izaten erran dugu, baina ez pentsa, orain ere Israelgo judu batzuek mandatu hau zorrotz betetzen dute. Etxeko lanak ere ez ditzakete egin eta.

Mezan, ebanjeliokoan, zenbat aldiz ez dugu entzun ondorengo gertakari hau?

“Behin batean, larunbatez, gari-soro batean zehar zihoan Jesus. Eta ikasleak, bidenabar, galburuak hartzen hasi ziren.

Fariseuek esan zioten Jesusi:

–Nola ari dira egiten, larunbatez zilegi ez dena? Hark erantzun:

–Ez al duzue inoiz irakurri zer egin zuen Davidek beharaldi batean, bera eta bere lagunak goseak aurkitu zirenean?

Nola, Abiatar apaiz nagusi zela, Jainkoaren etxean sartu eta Jaunari eskainiriko ogiak jan zituen, legez apaizek bakarrik jan zitzaketenak, eta nola berarekin zeudenei ere eman zien?

Eta, gainera, esan zien:

–Larunbata gizakiaren onerako egin zuen Jainkoak eta ez gizakia larunbataren onerako. Beraz, larunbataren beraren nagusi da Gizonaren Semea.

Markos ebanjelariaren Ebanjelioan datorren bezala kopia dugu. Eta badugu motiboa kontu hau gaur hona ekartzeko. Ez zaizu zuri hala iruditzen? Politikoez eta periodistek zenbat aldiz ez ote dute aipatu azken boladan Konstituzioa? Edozeini aurpegiratu izan diote Konstituzio horren betebeharra? Baina Konstituzioa baino lehen ez al dugu egia? Ez al dago jendea aurretik? Ez al dugu gizakia lehen lerroan jarri behar? Ai, ai, zenbat fariseu bizi den oraingo mundu honetan!! Larunbata, Larunbata...eta zer!?

*Hurrengoan Gobernuaren kontra ariko gaituk. Edo alkatearen kontra, zer kontxo!*



*Hemen dugu Aizarozko Atamendiko borda, Martin Arretxearen jaiotetxea. Aurrean Joxe zena, Martinen iloba.*

## HIZTEGIA:

TENTELKERIA: ergelkeria

OTURUNTZA: banquete

I HARDETSI: erantzun

GALBURUA: espiga. Gure alderdian gari buruka (buruke) ibiltzen da. Beste zenbait tokitan buruxka.



FATIMA DJARRA, IDAZLE ETA AKTIBISTA:

## “Afrikari buruz ezjakintasun handia dago”

Fatima Djarraren liburua ez duzu Durangon aurkituko baina ez da merezi ez duelako. Umoretsua, bizia eta argia dugu Djarra, elkarrizketa arina eta dibertigarria eskaini diguna. Guinea Bissaun jaio zen duela mende erdi, eta duela urte batzuk Nafarroan bizi da, Iruñeko Arrosadia auzoan.

“Flor de Africa” emakume afrikarren elkarteko presidente, Munduko Medikuen elkartean bitartekaria eta Eraikuntzan teknikaria dugu Djarra. Gorka Moreno kazetariarekin batera, “Indomable” liburuaren sortzailea ere bada. Emakumeen ablazioaren aurkako borrokalaria izateagatik da ezaguna, eta Larraintzarren bere liburua aurkeztu zuen.



*Iruñeko Gaztelu plazako kioskoan, Afrikako Egunaren manifestaldiaren ondorengo mitinean*

### **Lehenik eta behin, zorionak, badakigu urteak bete berri dituzula, 50 gainera, zer moduz?**

Gutxi gorabehera ongi, esan beharko, oso festa polita prestatu genuen urtebetetzea ospatzeko, baina egun gutxitara oinean mina atera zitzaidan. Norbaitek inbidia izan ote dit? Kar kar kar...

### **Ultzaman egon zinen zure liburua aurkezten, zer moduz?**

Larraintzarren oso pozik egon ginen: liburu guztiak erosi zizkidaten, ale gehiago nahi zituzten, baina ez nituen gehiago ekarri. Galdera asko egin zituzten, bai. Sentitu nuen Afrikari buruz ezjakintasun handia dagoela eta jakin-mina ere.

### **Non sentitu zenuen ezjakintasuna?**

Nire ustez hemengo gizartean eraginik ez duten gaiak direnez, jendeak ez ditu ezagutzen, ez dute interesik pizten. Halere, badaude beste gai batzuk; sukaldaritza, adibidez, edota ea nola etortzen garen hona...

### **“Indomable” liburua ez da berria, ezta?**

2015. urteko udan argitaratu genuen. Nafarroan leku askotan aurkeztu dut eta oso harrera ona izan

dut. Jendea beti oso gogotsu agertzen da. Gorka Moreno kazetariarekin batera idatzi nuen.

### **Liburua autobiografikoa da...**

Nire bizitzaren gorabeherari buruz hitz egiten da liburuan, eta baita hemen gaur egun aurrera eramaten dugun lanari buruz: Nafarroan emakumeen genitalen mutilazioa saihesteko prebentzio kanpainak egiten ditugu. Munduko Osasun Erakundearen arabera, 140 miloi emakumek jasan dute ablazioa, gehienak oraindik egiten den Afrika eta Ekialde Ertaineko 28 herrialdeetan, nahiz eta horietako askotan legeak debekatua den.

### **Liburuari buruz zerbait esan nahi?**

Jendeak gehien azpimarratzen duena da afrikar emakumeak indartzeko mezua dela, ahotsa ematen diola Afrikako emakumeei. Bestetik, pare bat kontu aipatu nahi ditut gure elkarteari buruz: gure elkarteak “Flor de Africa” du izena, eta 2010eko maiatzean sortu genuen. Hasieran 12 herrialde-tako 70 emakume inguru geunden, eta orain 40 inguru gara dozena bat herrialde-takoak. Munduko Medikuen egoitzan biltzen gara eta bertan prestatuntza lanak eta halakoak egiten ditugu.

# A ver, a ver! **Vale!** Por cierto! Pronto!

Makulua. Hori denok jakinen dugu noski zer den. Erdaraz muleta esaten diote mainguek eta elbarriek ibiltzeko darabilten bastoi lagungarriari. Mintzatzerakoan ere, bai erdaraz bai euskaraz, zenbait hitz makulu bezala erabiltzen dira, esaldien hasieran, bukaeran edo tartean, askotan lagungarri bezala edo.



**E**ta, euskaraz aritzerakoan, zenbaitzuk erdarazko makuluak behar izaten ditugu, ageri-agerian utziz euskaraz zenbait aldiz herrenka edo mainguka gabiltzala. Eta zer esan hitzetik hortzera makulu horiek erabiltzen dituztenen hizkeraz?

Bai, aspaldixkoan, hizketarakoan edo idazterakoan, horrelako gauzak entzuten edo irakurtzen ditugu: A ver, vale, por cierto, pronto, por supuesto...Hori bai, idazterakoan, hitza mozorrotzeko, haber, bale, portzierto eta horrela idazten dute. Hala ere, zomorro nazkagarriak besterik ez dira. Eta hizketarakoan, berriz, aspertzen eta gogaitzen gaituzte; zerorren onetik aterako zaituzte. Jakina, irratian edo telebistan ari badira horrela, itzaltzeko gogoia pizten zaigu berehala, eta ia beti itzali egiten ditugu gainera.

Zeinen itsusi, zeinen trakets, zeinen lardats, zeinen nekagarri egiten duten beren etorri maketsa... Bai, solasean ari direla ematen dute maingu direla, beren makuluekin porlanezko zolan tok, tok, tok...aspergarri horrekin, belarriak mintzerainoko ibiliarekin.

Eta hitz horiek guztiak berriak dira, gure hizkerara sartu berri-berriak. Horietako asko ez nizkien inoiz

entzun hemengo zaharrei. Orain, aunitzen ahotan, pestea da.

Nonbait ez ditugu euskaraz esaten ahal horrelakoak. Hor ditugu bada, esate baterako: ea (ia); ongi, ederki, ongi da; hain zuzen; laster, agudo...; jakina! Bai! Bai horixe!

Etsenplu bat jarriko dugu: eman dezagun, zenbaitzuk erabiltzen duten "etorri bezain pronto" delako hori zenbat modutara esan dezakegun euskaraz: etorri orduko, etorri bezain laster, etorri bezain agudo, etorri eta berehala... Eta hala ere pronto sartzea gustatzen!

Hitz horiek ardo frexkoa mintzeko modukoak dira. Ea hainbeste ozpin tantekin ozpintzen diguten ardo frexkoa! Hain zuzen horrela mintzen dira hizkuntzak eta agudo gainera. Ongi, ederki, gaurkoa esan dugu, aski da! Hurren artio.

## HIZTEGIA

GOGAITU: aspertu

PIZTU: hemengo zenbait herritan ixiki ibiltzen dugu.

LARDATSA: zabarra

ETORRIA: hizketarakoan erraztasuna.

HAIN ZUZEN: precisamente, justamente



# Kontzeju izateko bidean

Basaburuko herriak egin beharreko lan burokratikoak bete ditu eta orain ikusi beharko dugu noiz bihurtuko den ofizialki kontzeju. Gai honen inguruan gehiago jakiteko Karmentxu Garcesekin hitz egin dugu. Herriko biztanlea eta Kultur teknikaria izateaz gain, prozesu honen antolakuntzan aritu da.



A.S

**O**rain arte atea itxita egon da, Gobernuak zioen kontzeju berririk ez zela egingo, baina aurten agian herri batzuei aukera eman-go ziela jakin izan zen, Nafarroan bizpahiru herriri eman zitzaien aukera, eta horien artean Aizarotz zegoen.

“Nafarroako Gobernuak bi bide burokratiko aitortzen ditu: lehenengoa, udal batzarreko bozen bi herenekin onartu eta horren ondoren herri horretan erreferendum bat egitea; bigarren bidea da sinadura bilketa baten bitartez kontzeju bihurtu nahi duen herri horretan bozkatzeko adina duten biztanleen gehiengoak (errolaren erdia baino bat gehiago) kontzeju izateko eskaera egin eta, ondoren, Udalak eskaera onartzea.

Bigarren bide hori aukeratu zen herrian, eta sinadura bilketa egin ondoren badute beharrezkoa den kopurua. Hori bai, Karmentxuk aitortu digu ez dela lan erraza izan: “Juxtu ibili gara sinadurak lortzeko. Datu pertsonalen legea dela eta, Udaletik ezin ziguten errolda eman eta oraindik ez garenez “ezer”, bada, ez digute daturik eman. Aizarotzen 120 biztanle inguruk betetzen dituzte bozkatu ahal izateko baldintzak, baina biztanleen joan-etorriak direla eta ez zekiten ongi nor zegoen erroldatuta zegoen eta nor ez. “60 bildu behar genituen eta hortxe ibili gara. Izandako zailtasunak direla eta, gehiengoak lortu dugunean eten egin dugu bilketa”.

Abenduko lehenengo astean bukatu zen sinadura bilketa eta Karmentxuk aitortu digu jai egunak direla eta oraindik ez dakiela bidali diren ala ez: “aurretik esan digute Udalak sinadurak aitortuko dituela eta

orduan hasiko litzateke prozesua”.

## Eskumenak

Kontzejua izatean lan desberdinak hartzen ahal dituzu eta gure kasuan aukeratu ditugu gutxiengoa izatea: kaleko argiztapena, herriko festak, artxiboa eta hilerria; baina, noski, hilerririk ez dugu, eta legeak dio ez badago ez dela derrigorrezkoa jartzera. Beste mota batzuetako eskumenik ez dugu hartuko momentuz.

## Kontzejua, zergatik?

Karmentxurekin izan dugun hizketaldian, galdera simple bat sortu zaigu bukatzeko. Zertarako behar da, edo zein da kontzeju izatearen helburua? Entitate juridiko bat izatea da helburua, Identifikazio Fiskalaren Kode (IFK) bat izatea, hainbat proiektu aurrera eraman ahal izateko behar baita halako entitate bat izatea, eta, izaera juridikoaz gain, bere barnean dagoen oinarria: herriak nolabaiteko legitimitatea izatea, batzarrak egiten ditugunean erabakiak hartzen dira, baina edozeinek esan dezake erabaki horiek ez dutela inolako baliorik.

## Zer dio hiztegiak?

Hau da wikipediak dioena “Nafarroako Kontzejuak” bilatzen duzunean. Interesgarria iruditu zaigu eta hitzez hitz honela dio:

kontzejua, Araban eta Nafarroa Garaian, udalerrri baten barruan nolabaiteko autonomia duen herria da. Kontzejua lurralde izaerako toki erakunde bat da, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dituen, eta bere interesak kudeatzeko autonomia duena. Araban, 335 kontzeju daude: 16 kontzeju itxi eta 319 kontzeju ireki. Nafarroa Garaiak 348 kontzeju ditu.





# Juego de Purines

Aspaldi konturatu ginen gauzak ez zirela batere garbi egin biogas plantaren inguruan, baina, Nafarroako Kontu Ganberaren txostenarekin lehenik eta Parlamentuko Ikerketa Batzordearekin gero, gure aurreikuspenak tamalez gainditu egin dira.



**J**akinen duzuen Nafarroako Kontuen Ganberari Plantaren fiskalizazioa eskatu zitzaion Parlamentuko bozeramale batzarretik, handik denbora luze batera (zaila egin baitzitzaien ikerketa, batez ere fakturazio bikoitzari zegokiona) txosten bat argitaratu zuen guzti honen inguruan eta behingoz susmoei aurpegia jartzen hasi zioten.

Parlamentutik Ikerketa Batzorde bat osatu zen Biogas Plantaren inguruko jarduerak legalitate barnean egin zirenezagutu eta erabakitzeko.

Oraingoz pisuzko hiru pertsona azaldu dira Ikerketa Batzordearen aurrean: Asun Olaetxea Kontuen Ganberako lehendakaria, Manu Aierdi Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako lehendakariordea eta Isabel Elizalde Nafarroako Gobernuako Landa Garapena, Toki Administrazioa eta Ingurumeneko sailburua. Han esandakoak ikusi eta entzun nahi izanez gero Parlamentuko web orrialdera joan zaitezke eta "videoteca" delako atalean bilatu. Baina erne, erabat harrapaturik geratzeko arriskua dago.

Folletoia hasi besterik ez da eta iruzurra azaleratuta geratzen ari da. Dirudienez binomio nagusia Patxi Perez alkate ohiak eta Levenger enpresak osatu dute diru publikoa eskuratzeko orduan. Hasteko, 2007an aurreproiektua, proiektua eta obra zuzendaritza kudeatu zituen udalakhonekin eta Aierdi injeniariekin, baina urriaren 2008an egin zen kontratazioa, eta hara! Levenger enpresari eman zitzaion.

Kuriosoa da, Levenger adjudikaziodunaren helburu soziala ordura arte kogenerazioa makinariaren SALMENTA zen, BAINA 2007an aldatu zuen eta hortik aurrera kogenerazio, biomasa eta biogas galderen INSTALAZIOA izan zen bere helburu soziala.

Behin udalak adjudikazioa eman, handik bi hilabetera, 2008ko abenduan, abeltzain kooperatiba elkarte batek Levenger enpresarekin, Aierdi injeniariekin, inguruko enprekin eta partikularrekin Bioenergia Ultzama osatu zuten eta kontzesioaren lagatzea eskatu zioten udalari eta honek 2009ko otsailean baimendu zuen.

Kuriosoa hemen ere kontzesioaren lagatzearen baimena eta formalizazioa jaso aurretik, beste modu batera erranda, existitu aurretik, lagapen-hartzailak (Bioenergia alegia) fakturak igorri egin zizkiola udalari. Obrak 2010eko urriaren amaitu ziren (ez da obraren amaierako ziurtagiririk aurkitu) eta urte bereko abenduan planta inauguratu zuten hots handiz, Sanz lehendakaria eta guzti.

Uste baino ilunago hasi ziren gauzak beraz. Eta irregulartasunez beteta jarraitu zuen prozesuak.

Kontuen Ganbarak ordainketa bikoiztuta antzeman zuen, Bioenergiak kontzeptu berarengatik (kontzeptua digestato deposituak izanik) bi hornitzaile desberdini ordaindu baitziren. Fakturazio bikoitzak balio izan zuen gero diru-laguntzak jasotzeko bi Sail desberdinetatik: Industria Saitetik eta Landa Garapen eta Ingurumen Saitetik.

Luze joango da Ikerketa Batzordearen lana, baina guri oso argigarria iruditu zitzaigun Jesus Maria Mangado Urdanizek, egun INTIAko ikertzailea, 2014an, bosgarren edukiontzia edukia hona ekartzeko proiektu ahedabideetan zebilenean, Diario de Navarra argitaratu zuen gutuna. Lerro honek asko argitzen zuen plantaren inguruan zeukan iritzia: "... existitzen ez den arazo bat konpontzeko porrot egin duen garatutako proiektu batek sortu duen beste arazo bat konpondu nahian ...".

Gutun honetan argi eta garbi erraten zuen mindaren "arazoa" ez zela arazoa, lurralde nahikoa dagoela hazienda eta lurrarekin oreka ongi mantentzeko.

Erreka eta soroak mindarekin kutsatzearekin batera 5,7 milioi euro joan dirabide beretik. Norena da erantzukizuna?

ARTXAR ERREKASTOAREN ITZALA

(BIDEOEN ESTEKAK [WWW.AMETZA.EUS](http://WWW.AMETZA.EUS) WEBGUNEAN DITUZU)

## ANA IRIGOIEN TORRES, AIZAROSKO OSTALARIA

**“Ez ezazu inoiz esan zer egiteko asmoa duzun, besterik gabe egin ezazu”**

Aizarozko ostatua hartu zuen Ana Irigoienek duela urte bete inguru. Horrela, etxetik gertu lan egitea lortu du, eta gustuko duen ofizioa da.



***Etxetik gertu lan egitea lortu duzu, zer ekarri dizu horrek?***

Bada, lehenik eta behin, lan berri hau hartu baino lehenagoko lanera itzuli behar ez izatea, eta has-teko hori gauza handia da.

***Nola erabaki zenuen Aizarozko ostatua hartzea?***

Ostatuan hasi baino lehenago beste lan batean aritzen nintzen, eta egoera ez zen ona, aldake-ta bat behar nuen. Aizarozko ostatua oso aukera ona izan zen niretzat.

***Denbora daramazu jada ostatuan, zer moduz ari zara?***

Egia esan oso ongi. Oso gustura ari naiz, eta po-zik nago. Gainera, jendeak oso ongi erantzun du.

***Eskualdean, ez zarete gutxi ostalaritzaren bidez etxe ondoan lan egitea lortu duzuenak, hemen lan egiteko alternatiba bat da?***

Beste lan aukera eta gauza askorekin batera al-ternatiba bat da, bai. Gustuko izanez gero, etxetik

gertuko lana da, eta nagusirik gabekoa. Zergatik ez?

***Uste duzu emakumeek aukera gutxiago duzuela inguru honetan lan egiteko? Abeltzaintza, industria... normalean gizonek egin dituzten lanak izan dira.***

Ez dut uste gizonek guk baino aukera gehiago dituztenik, denok berdin egin dezakegu lan. Uste dut faktore garrantzitsu bat hizkuntzarena izan daitekeela, baina horretan ari naiz.

***Ostalariaren begietatik, nola ikusten duzu Aizarotz?***

Herri giroa dago, Aizarotzen haur eta gazte asko daude. Arratsaldeetan eta asteburuetan mugi-mendu handia dago herrian, eta udan askoz ge-hiago!

***Zer asmo duzu hemendik aurrera?***

Nire lagunik onenak hauxe esan zidan: “Ez eza-zu inoiz esan zer egiteko asmoa duzun, besterik gabe egin ezazu.”





# Kirolaren eguna **berreskuratu** du Ultzamak

**Eta euskararen nazioarteko egunean izan zen, abenduaren 3an. Horregatik, kirola eta euskara uztartzeko egitaraua antolatu zuen Ultzamako Udalak eskualdeko herritarrekin batera.**



**U**rte osoan eta aurreko urteetan ere, gure kirolarien berri eman dizuegu, baita haien lorpenen berri ere. Esku-pilota, herri kirola, mendi lasterketak, golfa, errugbia, sega, txirrindularitza... jarduera askotan ditugu kirolari ugari, eta batzuk maila gorenean aritzen direnak.

Baina urteak dira kirolaren eguna galdu genuela. Nahiz eta urtean zehar ekitaldiak ugari izan, lehenago izaten zen egun hori falta zen, eta 2017ko bukaera honetan berreskuratu du Ultzamako Udalak. Eta aurreko egunean Ultzamako ezagutza eta jolasak euskararekin uztartu bazituen, kirolaren egun honetan kirola eta euskara uztartzea izan zen helburua, euskararen nazioarteko eguna ospatzen baitzen abenduaren 3an.

Ultzamako herri kirol eta dantza talde zein pilota eskolaren parte-hartzea nabarmendu beharko dugu, giro ederra sortu baitzuten Larraintzarko pilotalekuan, eta erakustalditik erakustaldira, bertsolariak izan genituen, kirolaren eta hizkuntzaren uztarketa hori eginez.

## Omenaldi bereziak

Bi momentu berezi eta emozioz beterikoak izan zituen goizak. Lehena Joar Lopez ateztarrari eginiko omenaldian; izan ere herri kirol zein pilota taldeko kide zen, eta bere kide eta lagunek omenaldi beroa eskaini zioten.

Eta bigarrena, Ultzamako bi kirolari handiri eginiko esker on ekitaldia, Anaitz Arbilla eta Maddi Bracori hain zuzen ere. Bailaran kirolaren erreferente izan eta Ultzamaren izena lau haizetara zabaltzeagatik oparitxo bat eman zieten biei. Lehenengoa Eibar

futbol taldeko jokalaria da, Hercules, Rayo Vallecano eta Espanyol taldeetan aritu ondoren, Eibarrek fitxatu zuen 2016. urtean, eta maila handia erakutsiz aritu da azken bi denboraldietan. Eta Maddi La Unica errugbi taldeko jokalaria da. Zilarrezko mailan jokatzen du taldeak, baina ohorezko mailara igotzeko borrokan aritu da azken urteetan. Gainera, Euskadiko selekzioan aritu izan da behin baino gehiagotan, eta baita Espainiako selekzioan ere.

Ez bata eta ez bestea kirolaren egunean egoterik izan ez zuten arren, Maddirekin hitz egin nahi izan dugu bere iritzia jasotzeko, eta hauxe aipatu digu:

“Hasieran egun horretan Joarren omenaldirako aureskua dantzatzea eskatu zidaten, eta nik baiezkoa eman nuen. Gero etxera karta bat bidali zidaten erranez omenaldi bat egin nahi zutela eta gonbidatua nengoela, berriz ere baiezkoa bota nuen. Orduan bat-baten aste bat lehenago, Euskal Errugbiko Selektioarekin Madrilgo selekzioaren aurka jolastu eta galdu ondoren, hurrengo asteburua ere Madrilen pasa beharko genuela erran ziguten Andaluziako Selektioan aurka jolasteko. Beraz, ni ez nintzen han egon.

Hori bai, karta irakurri nuenen ez nuen espero holarik egingo zidatenik, azken finen ni duela urte bat baino gehiago egon nintzen eta gainera kategoria Sub18-an. Orduan sorpresa handia hartu nuen irakurtzerakoan, eta ilusioa egin zidan kontuan hartu izana emakumeak ere kirolen munduan gabiltzala. Gero guztiz espero ez nuena izan zen egin ziguten opari hori, kaikua, kriston polita dena. Eta hor daukat etxeko egongelan mundu guztiak ikus dezan!”



# BADATOR ZOZKETA



## Izenarekin bueltaka

**Z**ozketa mundiala. Hori da gure zozketaren izena. Zer izen jarri ibili ginen eztabaidatzen. Egia esan, ezer gutxi atera zen hizpidera. Ez ote dugu izenen bat atera behar? Eta Josu Larretxea izan zen Zozketa Mundiala proposatu zuena. Handia iruditzen, eta... Zozketa Mundiala. Eta hori hautatu genuen, besterik gabe.

Eta gertatzen den bezala izen ofiziala bat izaten da eta beste bat ez ofiziala. Jende aunitzek ezagutuko dute gure hau Zozketa Mundiala bezala, baina bada jende franko Zozketa beste laguntzailerik gabe ibiltzen duena. Eta aunitzendako berriz, Zerrien Zozketa da.

Eta erdaldunen artean, *La Zozketa* erraten diote o *La zozketa de los cerdos*. Zorionez, denek ezagutzen dute eguberri aurrean egin izan dugun zozketa hau, izen bat ibili bertzea ibili. Eguberri aurrettoan bai, baina hori iaz artio izan zen.

## Data berria

**K**ontuz, iaz Errege ondoren egin genuen zozketa. Aurten ere bai, hala eginen dugu, ilbeltza edo urtarrilaren 7an, bazkal ondoren, 4ak eta 30ean.

## Irratitik zuzenean emanen dugu.

**P**iztu, ixiki irratia. Eta hor entzunen dituzu gure esatari bikainak: Aitor Arangoa eta Nora Ramoneda, txiste eta zirtoen artean, sariak banatzen. Badute zer banatu, alafede! Aurten ere marka guziak hautsi ditugu.

## Ostatuak, gure laguntzaile finak

**F**abrika handiak eta ttikiak, dendak eta harategiak,... ile apaindegiak. Gutxi edo asko, denek laguntzen digute Zozketa eder eta bikain hau hornitzen. Iaz ez genituen aipatu ere egin, baina gure eskualdeko ostatu guziek laguntzen digute txartelak saltzen. Ahal dutena egiten dute. Eta zenbaitzuk gainera, bazkariak ere erregaloz ematen dizkigute. Beraz, gure esker ona hemendik beretik azaldu nahi diegu.

Hona hemen ostatu horiek:

*Ultzamako benta*  
*Larraitzarko ostatua*  
*Orokietako ostatua*  
*Berueteko ostatua*  
*Udabeko benta.*  
*Lanzko ostatua*

## Zerriak edo txerriak?

**Z**erria edo Txerria? Nahi duzun bezala. Basaburu aldean txerria ibiltzen dugu eta zerria ibiltzen dugunean berriz, beste esanahi bat ematen diogu: zikina edo lizuna.

Belate aldeko herrietan, aldiz, zerria, bi adieretan.

Zein gustatzen zaizu zuri? Zerria edo txerria?

Egia errateko, nik nahiago urdaiazpikoa. Hori ere zerria da, ezta?

## Behorak

**G**ure etxeetatik azienda urrundu dugu. Gaur egun ez dira gure bizitzaren parte. Behi, zerri, ardi...bakarren bat ia-ia desagertu ere egin dela esan dezakegu. Milaka urte gure ondo-ondoan izan direnak, orain ia-ia ikusi ere ez ditugu egiten. Eta zer esan zaldi-behorrez?

Zaldi-behorrak, gure mendietan ikusten ez diren animaliak dira honezkero. Gure mendietako larreetan ia ez dugu alerik ikusten Belate aldean ez bada. Behorren usain sarkorra noiztik ez duzu sumatu?

Hainbesteko inportantzia izan duen animalia giza-karen historian, hor dugu baztertua, han eta hemen, behortegi handi eta ttikietan, turismorako dela, kirol kontuetarako...

Hala ere, Zozketa Mundialean gurekin izanen ditugu, behor eta zaldi. Abre aziendarekin gozatzeko aukera ederra izanen duzue. Behorak ezagutu, behorrez ikasi, eta zamalkatu nahi bada. Bi bono eman dizkigute Igoako Bengoetxeko Bordako Yoli eta Josek. Ea suertea izaten dugun!

[www.caballosdelbosque.com](http://www.caballosdelbosque.com) helbidean duzu informazio gehiago.

## Beste sari batzuk

**A**urreko zenbakian aipatu genituen bidaiaz gain, aurten baditugu sari gehiago: Aipatu ditugun behorren kontu hori alde batetik eta bestetik, hainbat esneki, bazkari eta horrelako gehiago.



## Sari bereziak

**S**ari bereziak ere baditugu aurten, ederrak eta bikainak. Sorpresatxoak direnez, aurrerako jakinen duzue hauen berri.

Txartelak har eta zortea izan. Izan eskuzabal, gu ere gure aldetik hala izanen baikara. Aupa Zozketa Mundiala, Zerrien zozketa edo la Zozketa de los cerdos. Izenak ez du inporta. Euskarak du inporta.



*Hemen dugu Joxe Mari, zerri hila eta apaindua, bizkar gainean hartuta. Berrehun kilo izanen ditu ba zerri horrek*

### JOXE MARI GOIENAGA VILLABONA, ALKOZKO ZERRI HILTZAILEA

**A**urten Alkozko zerri hiltzailea izandakoa, Joxe Mari Goienagarekin egon gara. *Argiñeneko* semea, ezkonduz gero Iruñean bizi dena. Oraindik mutikoa zela, Arraizko harakindegian aritu zen lanean eta han ikasi zuen zerri hiltzen. Alkotzen, berriz, etxez etxe Iraizozko Migeltto aritzen zen.

**Joxe Mari, zu noiz eta nola hasi ziñen lan hortan?** Migeltto hori gelditzian, ia e'tzuen nai ziatik erraietaik eta ibiltzen zen franko gaizki; e'tzuen atra nai izaten. Eta ni hastian, herrien, edozeñek deitzen ziren. Itxe guzietan kasik ibili nitzen hiltzen. Eta Arraitzen, pare batian edo bizpirutan ere bai. Eta geroago, ezkondu nitzenian, ta leenago're bai, Erbittin, Auzen...

#### **Ordun zerri aunditz hil duzu zure bizitzen.**

Urte aunditz e'nuen pastu hiltzen biño hoietaun aunditz hil nuen. Itxe guzietan bat o bi hiltzen ziren eta, franko, franko. Urtian 25 biño geigo.

#### **Kas'in zaliak ez ba'ute lana biar bezala iten... izaten dire komediek.**

Hortan izan dut suerte poliki. Hala ere...bein, Auzen, lengusin itxan, hasi giñen itxeokak iñen giñula, ta pare bat makumiak. Ta lendabixien bai majo, biño txerrie naiz iduri akabatu dela, ondarreko zera ez bai-

## HIZTEGIA

EZTABAIDATU: Discutir

HIZPIDERA: Conversación

HAUTATU: Aukeratu, elegir.

ZIRTO: esaldi bizi eta zehatza, txispaduna

HORNITU: bete, dotar

ADIERA: Esanahia

ZAMALKATU: Cabalgar

tu... Deskuidua'atian, mugialdi bat in ta bota zittuen airian denak! Leengusue ta biok geldittu giñen zerrie aupas hartuta.

#### **Bertze zerri hiltze bat'e izan ziñuen Arraitzen. Nor ziren kasu'itten?**

Bai, Migel Landan itxan. Han *Sansiñeneko* bat eta gero bertzeen bat. Eta gero Migelen andria. Ta hain yende gutti, ta harrittuik utzi zireten. Makumi'horrek harpatu zuen zerrie, yarri zen zerrien gañien ta harpatu zuen gerruntzetik bankoan kontra, eta e'tzen zerrie mugittu ere egin. Harrittuik gelditu nitzen!

#### **Zerri hiltzaille guzik ba'ute hontan edo hartan abilidade berezie. Zu zertan ziñen ona?**

Ez dakit ba; leendabixitik odola oso ongi itten nuen. Baita Migeltto zenak ere. E'nion beñere kusi bi aldiz sartzen labana. Ez dakit ongi ikasi nuen edo, biño suertia izandu nuen, iñoiz e'nuen labana bi aldiz sartu izan.

#### **Eta bertzeik?**

Gustatzen zairen ongi afeitatzea, bizar nabalakin ta. Ximurtu, gero tellekin ta pixko'at garbittu ta ondarran, zerri guziei goittitik beira pasatzen nion bizar-nabala.

#### **Lan aunditz hartzen ziñuen.**

Ba, lan zerbait. Koñado batek erraten ziren: Motel, gastatu biar direk zerri guzie!

#### **Iruñera torri ondoan'e ibili ziñen zerri hiltzen.**

Bai, Iruñen lanian hasi giñelaik eta, Berrioplanoko lagun batzuentzat. Baita Jauregitarrentzat ere (Enpresako nagusiak) Haiek ere hil izandu zuten berendako zerrie. Hori hiltzen giñuen Ziaurritzen. Hor zittuten beren leengusu batzuk, osaba eta.

*Zerri hiltzaile bikaina izan dugu Joxe Mari, solasturi aparta eta lasaia. Irribarrez hartu gaitu bere etxean eta atseginez aritu gara solas eta solas, gauza aunitzez. Izan bizkor, Joxe Mari eta hurren artio!*

## HIZTEGIA

HARAKINDEGIA=Harategia.

GERRUNTZE=gerria

ERRAIA. Hemen giltzurri esanahiarekin darabil. Orokorrean, errai, entraña da.

ZERRIA. Belate aldeko herrietan zerria, ugaldearen beste aldean txerria.

Labana eta nabala, biak erabili ditu Joxe Mari.

# Urtebetetzeak



IOSU



IOSU



TXUMARI



IÑAKI



ANDONI

# Skabidean taldearen hurrengo diskoaren barruan

Lizasoko Imanol Olague musikariarekin batera grabazio prozesuan sartu gara



Nola grabatzen da disko bat? Zenbat denbora hartzen du prozesu guztiak osotara? Noiz hartzen dira erabakiak? Den-dena ordenagailu bidez egiten al da gaur egun? Skabidean taldean jotzen du Imanolek eta haien bigarren diskoaren grabazioa Barañaingo LaNabe estudioetan egin dute aste hauetan.

## NONDIK NORAKOAK:

**D**uela bost urte inguru Iruñerriko gazte hauek elkarrekin jotzen hasi ziren. Hasieratik jamaikar doinuak jorratzen hasi ziren, 80. hamarkadako Ingalaterran jorratu zen “two-tone” estiloaren barruan; azkeneko urteetan Euskal Herrian hedatu den ska-punkaren estilo aitzindaria. Ehunka kontzertu eman dituzte urte hauetan, haien estilo dantzagarria festa eta dantzarako oso aproposak baita. Aurtengo apirilean haien lehenengo diskoa kaleratu zuten, Skalariak taldeko Pelloarekin grabatuta. Azken hilabete hauetan jo eta fuego aritu dira haien hurrengo musika pausua prestatzen: diska berri bat, baina estilo aldaketa batekin batera; jamaikar doinu klasikoagoen bila, haien musika heldutasunaren isla?

## EBOLUZIOA:

**K**aribeko Jamaika irlan pasa den mendeko 50. hamarkadatik aurrera sekulako musika ekoizpena izan zen: Mento, calipso, ska, rocksteady, reggae, dub... Milaka eta milaka dira garai batean piraten “altxorren irlatik” atera izan diren musika harri bitxiak. Barañaingo Sustrai Records zigiluko jendeak musika estilo horiek lantzen dituzte batez ere, duela 50 urte bertan egiten zena nolabait Nafarroara ekartzen saiatzen dira: musikariak batera grabatzen dute, gela berebean, errepikapen askorik gabe, geroago edizio lan gutxi eginez... nolabait musikari zapo gordin eta interesgarria emanez. “Grabazio honetarako garrantzi handia eman diogu instrumentuen kalitateari, eta horretarako benetako piano bat alokatu dugu, Hammond organo bat, eta sekulako bateria bat utzi digute...” kontatu digu diskoaren ekoizleak, “horre-

taz gain, Shanti baxu joleak kontrabaxua sartu du abesti gehienetan eta horrek sekulako soinu polita eman dio abestiei”.

## PROZESUA:

**D**uela hilabete batzuk hasi ziren proiektuari buruz hitz egiten, musika kontzeptuari buruz eztabaidatzen, nolako abestiak jorratuko zituzten erabakitzen... Grabazio lan nagusiak abenduko zubietan egin dituzte, nahasketa eta masterizazio lana urtarrilean egiten dute eta espero dute otsailerako diskoa kalean egotea.

## ALDAKETA HANDIA OTE?

**T**aldekiekin hitz egin dugu eta haien musika eboluzioarekin pixka bat arduratuta daude: “Espero dugu abesti berriak txosnak ez hutsaraztea” komentatu digu barre artean Imanolek. “Gure kontzertuak ikustera oso jende gaztea etortzen da, eta gure abestiak orain motelxeagoak izango dira”. Nerabeak zirenean hasi ziren musika jotzen eta orain 20 urteren bueltan daudenean, musikaren sustraietara hurbilduz joan dira, ikusiko dugu zer erantzuna duen haien aldaketak.

## Eszena berria, musika zaharra?

**I**ruñerrian azken urteetan musika jamaikarraren eszena hedatuz joan da, hedabideetatik at. Gaur egun badago halako kultura eszena bat DJ, musika talde, Sound Sistem, kolektibo eta jaialdien inguruan. Jamaikar musika “zaharra” entzuten bada ere, oso nahastua dago gazteek gaur egun entzuten duten electro-cumbia, trap, rap, reggaeton eta halakoekin. Iruñerria tropikal berri baten ateetan ote gaude?



# 2017ko URRIKOA. GURE ALDERDIAN IZAN ZIREN JAIOTZAK, EZKONTZAK ETA HERIOTZAK:

## Jaiotzak

### BASABURUA

#### AIZAROTZ

Markel Iriarte Iragi, Txabi eta Yolandaren semea, Aizarozko *Luzearen bordan* sortu zen 2017ko urriaren 3an.

### ARRARATS

Lena Poncela Perez, Jaime Perez eta Tania Poncelaren alaba, Arraratsen sortu zen 2017ko urriaren 6an, *Txokon*.

### ODIETA

#### LATASA

Maria Jesus Elizondo Aragon, urriaren 17an, *Apezeneko* alaba.

### ULTZAMA


#### IRAIZOTZ

Francisco Olague Lizaso, urriaren 9an, *Migeltto* etxeko nagusia.


#### Lizaso

Juana Samora Ruiz, urriaren 9an, *Flor de Vidako* etxekoandrea.

## GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE.



Lena



Yoli Markeltxorekin

## Ezkontzak

### BASABURUA

#### AIZAROTZ

Miguel Angel Iragi Iturralde eta Meiba Riascos. 2017ko urriaren 17an ezkondu ziren.

### MILA ZORION EZKONBERRIEI

## Heriotzak

### ATETZ

#### ERITZE

Lydia Anotz Nabatz, urriaren 19an hil zen Iruñean. *Labasoko* etxekoandrea zen.

### BASABURUA

#### BERUETE

Pilar Arangoa Arangoa, urriaren 22an, *Arregiko* etxekoandrea.


### IMOTZ

#### ETXALEKU


Adoracion Igueltz Azpirotz, urriaren 23an, *Aztarrengo* etxekoandrea.




Adoración



Pilar Arangoa



Pepita, Azpikoetxekoa



Jexuxa



Pakito



## NEUMÁTICOS BETELU

**Juan Alonso Ortiz**  
 Tailer mugikorra  
 Pneumatikoen aldaketa  
 Zulaturako pneumatikoen konponketa

**Erdiko karrika, 8A**  
**Aizarotz (Baasaburua)**

  [info@neumaticosbetelu.es](mailto:info@neumaticosbetelu.es)  
**646 47 41 66**

-Zuk nahi duzun tokira joango gara zure  
 pneumatikoak konpontzera  
 -Kostu gehigarriarik gabe kontsultatu prezioak  
 -Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu



**Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak**  
**Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak**  
**Boletinak eta Ziurtagiriak**

# KARIKOLAR

## ELEKTRIZITATEA

 **629 31 53 32 - 722 766 835**

 **Lizaso**

 **karikolaregoitz@gmail.com**

## DABID ELIZONDO PINTURAK

**DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA**  
**TEL: 678 623866**  
**argapin@hotmail.com**



**ZIAURRITZ**

**gotelet-a kentzea / paretak leuntzea**  
**fatxadak zaharberritzea**  
**iragazgaizteak (impermeabilizaciones)**  
**kalitatea eta garbitasuna**  
**aurrekontuak konpromisorik gabe**



# Zozketa

# 2017

# Mundiala

## Sarien zerrenda Lista de Premios

**10 zerri gizen**

**2 farta**

**10 axuri eder**

Zapata pare bat

**16 BAZKARI (BI LAGUNENDAKOAK)**

2 KOSMETIKA SORTA

30 saskitto

**6 ESKU-LAN**

24 GALTA

8 esneki sorta

**2 landa etxeetarako bonoak (Aste-  
buruetarako)**

**BIDAIK**

3 bidaietarako bonoak (asteburueta-  
rako)

*Behor gainean txangoak (2)*

5 ile apaindegiko bonoak

**BESTERIK  
2 Sari berezi.**

**6 EROSKETA BONO**

[www.ametza.eus](http://www.ametza.eus)